

9. Diruz lagun daitezkeen gastuak

Laguntza horiek bateragarriak dira administrazioek edo erakundeek helburu berarekin edo antzekoarekin eman ditzaketen beste laguntza batzuekin.

Deialdi honetan aurreikusitako ondorioetarako, kirol-jarduerarekin zerikusia duten guztiak joko dira diruz lagun daitezkeen gastutzat: klubei ordaindutako kuotak, kirol-lizentzia, jantziak eta kirol-materiala, lehiaketa eta entrenamenduetarako joan-etorrien eta ostatuen gastuak, profesionalen zerbitzuak ematea, eta, hala badagokio, kirolariaren desgaitasunaren ondoriozko gastu espezifikoak (protesiak, gurpil-aulkiak, etab.), betiere kirol-jarduerarekin zuzenean lotuta badaude eta gastua justifikazio-aldia amaitu aurretik ordaindu bada.

10. Justifikazioa eta ordainketa

Dirulaguntza eskatzeko aurkeztutako aurrekontuak dakarren gastu osoa justifikatu beharko da.

Gastua justifikatzeko, fakturak eta pareko froga-balioa duten beste dokumentu batzuk aurkeztu beharko dira, trafikiko juridikoan, merkataritzakoan edo administrazio-eraginkortasunarekin (IV. eranskina). Faktura elektronikoen bidez ere egin ahal izango da, betiere zerga-arloan onartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen baditu.

Nolanahi ere, ordainketak egiaztatzeko agiriak ere aurkeztu beharko dira.

Dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, eskabidearekin batera eskatutako dokumentazioa aurkeztu eta eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren.

11. Ez-betetzea eta itzultzeko prozedura

Onuradunek dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, eta aurkeztu behar dituzten datuak eta dokumentuak faltsutu eta ezkututzen badituzte, dirulaguntza ezeztatu egingo da eta, hala badagokio, behar ez bezala ordaindutako zenbatekoak itzuli egingo dira.

Oinarri hauetan aurreikusi ez den guztirako, Zuiako Udalaren dirulaguntzak eta laguntzak ematea arautzen duen ordenantzan xedatutakoari jarraituko zaio.

EUSKARA IKASTEKO 2024KO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK

1. Xedea

Zuiako Udalak bertan erroldatutako jendeari 2024an eman beharreko diru-laguntzak arautzea du helburu deialdi honek; diru-laguntza horiek jarraian adierazten den edozein ikasketa egiteko dira.

– Euskaltegietan edo HABEk homologatuetako zentroetan egindako ikastaroak (2023eko urriaren 1etik 2024ko irailaren 30era arte).

– Ikastaroak barnetegi homologatuetan, 2024an.

2. Onuradunak

Deialdi honetako diru-laguntzak ondoko baldintzak betetzen dituzten 16 urtetik gorako pertsonentzat dira: Zuiako udalerrian errol-datuta egotea ikastaroa hasi baino urtebete lehenagotik, gutxienez, eta beretan erroldatuta egotea ikastaroa amaitu arte.

3. Eskaerak eta aurkeztu beharreko agiriak

Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira:

– Ikastaroko matrikula ordaindu delako frogagiria (jatorrizkoa).

– Euskaltegiaren edo barnetegiaren ziurtagiria; bertan, interesdunak egin dituen eta gainditu dituen mailak agertuko dira, bai eta aprobetxamendua eta asistentzia ere; era berean, zentroak emandako orduak eta ikasleak jasotakoak adierazi behar dira.

4. Onuradunen betebeharrak

Onuradunek hauexek egin beharko dituzte:

- Diru-laguntza eskatzen duen ikastaroan gutxienez orduen ehuneko 80an izan direla frogatu, ezinezkoa denean izan ezik (arrazoia azalduta).
- Ikastaroko maila gainditu edo, bestela, ikasketa orduak ondo aprobetxatu direla frogatu.
- Helburu bererako jasotzen diren laguntza eta diru-laguntza guztien berri eman Udalari.
- Udalari helburu bererako beste diru-laguntza edo laguntza batzuk lortu izana jakinaraztea, beste edozein administrazio, erakunde edo entitate publikotatik helburu bererako beste diru-laguntza edo laguntza batzuk eskuratu diren ala ez dioen zinpeko deklarazio baten bitartez. Beste diru-laguntzaren bat eskuratu bada, lortutako zenbatekoa eta administrazio emaila adierazi eta datu horien egiazkotasuna ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko da.
- Zuiako Udalarekiko zerga betebeharrak egunean eduki.

5. Eskaerak aurkezteko epealdia

Ikastaroa amaitzen denetik hilabeteko epealdia egongo da eskaerak aurkezteko, udalak emandako ereduaren arabera.

Eskaerak eta dokumentazioa udalaren sarrera-erregistroan entregatuko dira, udalak emandako ereduaren arabera, edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako edozein bide erabiliz.

6. Balorazio irizpideak

Diru-laguntzak borondatezkoak dira; Udalak ez dauka zertan diru-laguntzarik eman.

7. Eskaerak ebazteko eskumena daukan organoa

Alkatetzak emango du ebazpena informazio batzordeak bidezko txostena egin ondoren.

8. Aurrekontuko kreditua eta diru-laguntzaren zenbatekoa

Deialdi honen babespean ematen diren laguntzak 2024ko ekitaldiko aurrekontuko 335480000 partidaren kredituari, 10.000,00 euroko zenbatekoarekin egotziko zaizkio.

Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa ikastaroko matrikularen ehuneko 85 izango da, 600,00 euro urtean gehienez. Barnetegien kasuan ezin dira sartu diru-laguntzan mantenu gastuak ez ostatu gastuak.

Diru-laguntzaren zenbatekoa, bakarrik edo beste diru-laguntza batzuekin batera, ezin da izan ikastaroaren kostua baino gehiago.

9. Justifikatzea eta ordaintzea

Eskaera eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren ordainduko da diru-laguntza.

10. Arauak ez betetzea eta ondorioz diru-laguntza itzuli behar izatea

Onuradunak diru-laguntza jasotzeko jarri diren baldintzak betetzen ez baditu eta, era berean, aurkeztu beharreko datuak eta agiriak faltsutzen edo gordetzen baditu, kendu egingo da diru-laguntza, eta kasu horretan itzuli egin beharko du jasotako zenbatekoa.

Oinarri hauetan jasoten ez den orotarako Zuiako Udalaren laguntzak eta diru-laguntzak arautzen dituen ordenantza aplikatuko da.